

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
5/2012	R6/2017	2017-05-12	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-helbidea

Ebazpena: R6/2017

Espedientea: 5/2012

Vitoria-Gasteiz hirian, 2017ko maiatzaren 12an,

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero jauna batzordeburu eta Isaac Merino Jara jauna eta Javier Muguruza Arrese jauna batzordekide dituenak, honako

ERABAKIA HARTU DU

Bizkaiko Foru Aldundiak Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziari aurkeztutako eskumen-gatazkaren inguruan, ebatz dadin (IFZ: B-----) ERAKUNDEA 2004ko irailaren 10etik –eratu zenetik– 2008ko martxoaren 14ra arte egoitza fiskala dela-eta sortutako desadostasuna. Hala, Arbitraje Batzorde honetan 5/2012 espediente-zenbakia izapidetu da, Gabriel Casado Ollero jaunak txostengile gisa jardunez.

I. AURREKARIAK

1.- 5/2012 gatazka Bizkaiko Foru Ogasuneko Koordinazio eta Asistentzia Teknikoaren zuzendari nagusiak planteatu zuen, 2012ko otsailaren 3ko idatziaren bidez, zeina Arbitraje Batzorde honetan otsailaren 7an aurkeztu baitzen.

2.- Espedientetik honako gertaera esanguratsu hauek ateratzen dira, gatazkaren ondorioetarako:

a) ERAKUNDEA 2004/09/10ean eratutako sozietate bat da eta era guztietako eraikuntzak sustatu, eraiki, erosi, alokatu eta erosten jarduten du.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
5/2012	R6/2017	2017-05-12	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-helbidea

Eratu zenean egoitza soziala Bilboko (Bizkaia) 1 EGOITZA SOZIALEAN ezarri zuen.

b) Eraketa-eskrituran administratzaile solidario gisa hauek izendatu ziren: 1. ADMINISTRATZAILEA, egoitza Lleidan duena, eta 2. ADMINISTRATZAILEA, egoitza Bilbon (Bizkaia) duena.

c) 2007/07/23ko eskritura publikoaren bidez, erakundeak egoitza soziala Tarregako (Lleida) 2. EGOITZA SOZIALERA aldatu zuen eta, horrela, administrazio-erakundea aldatu zen. Ondorioz, administratzaile bakarra izatera pasatu zen 1. ADMINISTRATZAILEA.

d) Erakundeak adierazi zuen Foru Ogasunak 2005eko BEZagatik 167.806,6 euro itzuli behar zizkiola.

e) Eskatera horrengatik Foru Ogasunaren Zerga Ikuskaritza Zerbitzuak 2006ko maiatzaren 8an erabaki zuen informazioa egiaztatzeko edo lortzeko jarduketak egitea egiaztatze-prozedura mugatuaren barruan. Hori dela eta, 2006ko maiatzaren 18ko data duen txosten bat egin zuten eta bertan hau ondorioztatu zen: «Agerikoa da Bilbon egoitza soziala duen ERAKUNDEAK negozioen kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza Errioxan egiten dituela, toki horretan eraikin bat eraikitzen ari baitira; beraz, egoitza fiskala Errioxara aldatu beharko da 2004ko iraileko ondorioekin».

f) Aurreko txostena kontuan izanda, Ekonomia Itunaren 43. artikulua bederatzigarren zenbakian ezarritakoaren arabera, erakundearen egoitza fiskala aldatzeko proposamena jakinarazi zion Foru Ogasunak ZAEari 2006ko maiatzaren 25ean, Bilboko (Bizkaia) 1. EGOITZA SOZIALETIK Errioxara lekualda zedin, eta horrek atzerako eragina izan zezan 2004ko irailera arte, eratu zen arte.

g) ZAEaren Zerga Kudeaketaren Probintziako Bulegoak sozietatearen egoitza fiskala egiaztatzeko jarduketak egin zituen. Hori dela eta, 2008ko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
5/2012	R6/2017	2017-05-12	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-helbidea</i>

abenduaren 9ko data duen txostena egin zuen eta bertan hau ondorioztatu zuen: «ERAKUNDEAREN benetako egoitza fiskala, eragiketak hasi ziren datatik, 2004/09/23tik, 2008/03/14ra arte Bilbon egon da (Bizkaia) 1. EGOITZA SOZIALEAN, eta aurreko datatik aurrera Tarregan (Lleida), 2. EGOITZA SOZIALEAN; izan ere, toki horretan egiten dira negozioen kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza-lanak».

h) ZAEAREN Harreman Instituzionalen Eskualdeko Bulegoak 2009ko azaroaren 12an BFARI 2008ko abenduaren 9ko txostenaren kopia bat bidali zion, bere «behin-behineko erantzunarekin» batera, eta erantzun horren arabera: «ez da bidezkoa proposatutako egoitza fiskalaren atzeraeragina, eta erakundeak 2008/03/14ra arte (data horretan egoitza Lleidara aldatu zuen) egoitza Bilbon (Bizkaia) izan zuela zehazten dugu». Eta Foru Ogasunari eskatzen dio (egoitza-aldaketari buruzko Lantaldearen ondorioen 5.3 puntuaren eta Ekonomia Itunaren 43. artikulua bederatzigarren zenbakian aurreikusitako egoitza-aldaketari buruzko adiskidetasunezko prozeduraren arabera) «bere proposamena berrets dezala, osa dezala edo bi administrazioen bilera bat egin dadila, ondorio horietan hala aurreikusita baitago».

i) 2009ko azaroaren 13an BFAREN Errolda Fiskalen Arloko buruak Foru Ogasunaren Zerga Ikuskaritzaren zerbitzaburuari ZAEAK emandako erantzuna bidali zion, 2006ko maiatzaren 18ko hasierako txostenarekin batera, eta eskatu zion beste txosten bat egin zezala eta bertan, datu berriak kontuan izanda, ERAKUNDEAREN egoitza fiskala aldatzeko proposamena zuzendu edo berretsi zezala.

j) Foru Ogasunaren Zerga Ikuskaritzaren Zerbitzuak beste txosten bat egin zuen, 2009ko azaroaren 24ko data duena, eta bertan berretsi egin zuen 2006ko maiatzean egindakoa, eta ZAEARI jakinarazi zion 2009ko azaroaren 30ean berretsi egiten zuela hasierako proposamena, hau da, Errioxara egoitza fiskala aldatzeko proposamena 2004ko iraileko ondorioekin, eta hau proposatu zion:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
5/2012	R6/2017	2017-05-12	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-helbidea

«Administrazio horrek zuzenketa egiten duen kasuan izan ezik, bi Administrazioetan arteko bilera egitea eztabaida ebazte aldera».

k) BFAk ez zuen ZAEAREN erantzunik jaso aurreko komunikazioaren inguruan eta ez zen bilerarik egin bi Administrazioen artean eztabaida ebazteko; beraz, erakundeak aurkeztutako 2006ko ekitaldiko sozietateen zergaren azken deklarazioko datuak erabilia (bertan, «Harremanetan jartzeko pertsona» gisa administratzaile solidarioaren izena agertzen da, 2. ADMINISTRATZAILEA, eta, jarraian, X AHOLKULARITZA FISKALAREN telefono bat agertzen da), enpresaren aurreko aholkulari fiskalaren egoitzan 2011ko urriaren 13an Zerga Ikuskaritza eratuta, gertaerak jasotzeko eginbidea egin zen, eta, bestek beste, aipatutako aholkulariaren iritzi hau jaso zen: «ERAKUNDEAREN jardueraren kudeaketa eta zuzendaritza Lleidan zegoen».

l) Aipatutako eginbidean oinarrituta, BFAREN Ikuskaritzaren Zerbitzuak beste txosten bat egin zuen, 2011ko urriaren 17ko data duena, eta hau adierazi zuen: «Lortutako informazioa kontuan hartuta, esan daiteke erakundea eratu zenetik (2004ko iraila) Lleidan kokatuta egon zirela negozioaren benetako kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza 2008-07-14ra arte, orduko administratzaile bakarrak (1. ADMINISTRATZAILEA) kargua utzi eta sozietatearen administratzaile berri bat izendatu zen arte». Eta hau ondorioztatu zuen: «ZAEARI aurrekariak eta zergadunaren egoitza fiskala ofizioz aldatzeko proposamena bidalita (...) Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziak aldaketa-proposamen horren aurka zegoela adierazi zuenez eta aipatutako eztabaida ebazteko aurreikusitako bi Administrazioen arteko bilera ez zenez egin, interpretatzen da ezarritako prozedurari ez jarraitzeak esan nahi duela adiskidetasunezko prozedura amaitu dela».

m) 2011ko urriaren 21ean Bizkaiko Foru Ogasunak, Ekonomia Itunaren 43. artikulua bederatzigarren zenbakiaren ondorioetarako, egoitza aldatzeko beste proposamen bat egin zuen baldintza berdinetan atzera egiteko datari

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
5/2012	R6/2017	2017-05-12	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-helbidea</i>

dagokionez, baina proposamen honetan Lleida zen egoitza fiskala eta ez Errioxa.

n) Estatuko Administrazioak ezer ez zuenez adierazi 2012ko otsailaren 3ko data duen proposamen berriari dagokionez, BFAren Ogasun zuzendari nagusiak erabaki zuen Arbitraje Batzordean gatazka aurkeztea.

3.- BFAk bere planeamendu-idatzian hau dio: «Nahiz eta ERAKUNDEAREN egoitza fiskala aldatzeko proposamenak, Bizkaiko Foru Aldundiak hasieran esaten zuenak, egoitza fiskala Errioxara igortzen zuen eta 2004ko irailean erakundea eratu zenetik ondorioak sortzen zituen, Foru Ikuskaritzak 2011ko urriaren 13an lortutako informazio berriaren bidez, (...) erakundeko aholkularietako bat zenak eskainia (...), esan daiteke erakundearen negozioaren benetako kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza beti Lleidan egon direla; hasieran, eratu zenetik 2008ko martxora arte, 1. ADMINISTRATZAILEAK eta haren enpresa-taldeak ERAKUNDEA kudeatu eta zuzentzen zuten egoitzan, eta bigarren fase batean, 2008ko martxoaren 14tik aurrera, Tarregako (Lleida) 2. EGOITZA SOZIALEAN erakundeak deklaraturako egoitza fiskal berrian.

BFAk erantsi du Zerga Administrazioaren Estatu Agentziak ez duela zalantzan jartzen sozietateak egoitza fiskala Lleidan duela 2008ko martxotik, baina zalantzan jartzen du erakundearen jardueraren lehenengo faseari dagokionez (enpresa sortu zenetik 2008ra arte), eta ZAEAk adierazten du aldi horretan erakundearen egoitza fiskalak Bilbon (Bizkaia) 1. EGOITZA SOZIALEAN deklaraturako egoitza sozialarekin bat egin behar duela. Halere, 2011ko urriaren 13an lortutako informazioarekin (...), esan daiteke aldi horretan, erakundea eratu zenetik 2008ko martxoan egoitza fiskala aldatu zuen arte, ERAKUNDEAK Errioxan garatu zuela higiezinak sustatu eta eraikitzeko jarduera, Bilbon (Bizkaia) nolabaiteko merkataritza-jarduera eta deklarazioen aurkezpen-jarduera sortu zela, eta Lleidan kudeaketa administratiboa egin zela

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
5/2012	R6/2017	2017-05-12	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-helbidea

eta enpresako erabaki nagusiak hartzeko zentroa bertan zegoela; beraz, azken kokapen honetan kokatu behar zuen erakundearen egoitza fiskala» (Hirugarren oinarria). Eta, amaitzeko, Arbitraje Batzordeari hau eskatzen dio: «ERAKUNDEAREN egoitza fiskala zuzentzea egokitzat deklaratu dezala (...), hau da, Lleidan 2004ko irailaren 1etik 2008ko martxoaren 14ra zegoela, Euskal Autonomia Erkidegoarekin adostutako Ekonomia Itunean ezarritakoaren arabera (...))».

4.- Arbitraje Batzordeak 2016ko maiatzaren 4ko bileran gatazka tramiterako onartzea adostu zuen. Onarpen hori Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziari jakinarazi zitzaion eta alegazioak egiteko hilabeteko epea ezarri. Alegazio horiek posta administratiboaren bidez aurkeztu ziren, ekainaren 10ean, zuzendari nagusiaren idatziaren bidez. Bertan, aurka egin zion BFaren egoitza fiskala zuzentzeko asmoari eta Arbitraje Batzordeari eskatu zion erakundeak 2004/09/10etik, eratu zenetik, 2008/03/14ra bere egoitza fiskala Bilbon izan duela deklaratzeko.

5.- Espedientea agerian jartzeko izapidean, Bizkaiko Foru Aldundiak 2016ko uztailaren 13an amaierako alegazioak aurkeztu zituen. Bertan, planteamendu-idatziko Zuzenbidearen aurrekari eta oinarri guztiak berretsi zituen, eta aurka egin zion erakundeko aholkularietako bat izan zenak eginbidean egindako adierazpenen inguruan ZAEAk alegazioetan baieztatutakoari, eta kritikatu zuen «zerga-ordenamenduko ustezko egitasunari buruz Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziak itxuraz duen ikuspegi partzial eta interesduna, eta eginbideetan egindako adierazpenen froga-balioekiko duen mespretxua»; hori ez dator bat «Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziak (...) beste batzuetan (...), Estatuko Agentzian horren interesen arabera, zergadunak aurkeztutako deklarazio eta likidazioei eman nahi izan dien ustezko egitasunarekin» (bigarren alegazioa).

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
5/2012	R6/2017	2017-05-12	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-helbidea

6.- Izapide honetan ez da jaso ez ERAKUNDEAREN ez Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziaren alegazioak aurkeztu direnik.

7.- Prozedura hori Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen araudia onartzen duen abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuan xedatuta dagoenaren arabera izapidetu da.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Gatazka honetan Bizkaiko Foru Aldundiak planteatutako funtsezko gaia da ERAKUNDEAK deklaraturako egoitza fiskala zuzentzea edo ez zuzentzea bidezkoa den zehaztea. Erakundeak deklaratu baitzuen Bizkaiko Lurralde Historikoan zuela egoitza (Bilboko 1. EGOITZA SOZIALA) 2004ko irailaren 10etik –eratu zenetik– erakundeak egoitza fiskala Tarregara (Lleida) –2. EGOITZA SOZIALERA– aldatzeko 036 eredua aurkeztu zuen egunera arte, hau da, 2008ko martxoaren 14ra arte.

Halere, aurrez onartu ezin den kausaren bat aztertu behar dugu, zeren ordena publikoko gaiak direnez, ofizioz baloratu behar dira, nahiz eta, hemen gertatzen den bezala, aldeetako inork ez dituen planteatu (Zfr; Ekonomia Itunaren 67. artikulua, Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 17.3 artikulua eta 2013ko ekainaren 28ko Auzitegi Gorenaren epaia, 754/2011 errekurtsua eta Auzitegi Gorenaren 2013ko azaroaren 15eko epaia, 467/2013 errekurtsua, FJ3).

2.- Aipaturako helburuarekin, komeni da arreta jartzea espedienteak jakinarazten dituen datuei, hau da, ebazpen honen aurrekarietan jasotzen diren datuei:

a) ERAKUNDEAREN egoitzari buruzko desadostasuna Bizkaiko Foru Aldundiak egindako egiaztatze-jarduketan ondorioz sortu da. Jarduketa horiek erakundeak 2005eko ekitaldiko balio erantsiaren gaineko zergari dagozkion

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
5/2012	R6/2017	2017-05-12	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-helbidea

167.806,60 euro itzultzeko egindako eskaera bidezkoa ote zen jakiteko izan ziren, eta 2006ko maiatzaren 25ean formalizatu zen desadostasun hori, ZAEARI proposamena jakinarazita. Bertan, erakundearen egoitza fiskala Bilbotik Errioxara aldatzea proposatu zen, 2004ko irailera arteko –erakundea eratu zen arteko– atzeraeginezko ondorioekin; horrela, Ekonomia Itunaren 43.artikuluaren bederatzigarren atalean aurreikusitako prozedura hasi zen.

b) Hiru urte eta erdi pasatu arte, 2009ko azaroaren 12an, errekeritutako Estatuaren Administrazioak ez zion BFAri bidali bere «behin-behineko erantzuna» eta aurka egin zion Foru Aldundiak proposatutako egoitza fiskalaren zuzenketari.

c) Beste bi urte pasatu ziren BFAk, aurrekarietan adierazitako jarduketan ondoren, 2011ko urriaren 17ko datarekin txosten bat egiteko eta hau jaso zuen: «Bizkaiko Foru Aldundiak hasierako proposamena berretsi duenez eta ez denez egin aipatutako eztabaida ebazteko bi Administrazioen arteko bilerarik, ezarritako prozedurarekin ez jarraitzea (...) adiskidetasunezko prozeduraren (Ekonomia Itunaren 43. artikuluen bederatzigarren atalean aurreikusia) amaiera gisa interpretatu da» (gatazka-planteamenduaren bederatzigarren aurrekaria).

d) Halere, Bizkaiko Foru Aldundiak adiskidetasunezko beste prozedura bat hastea erabaki zuen, eta, 2011ko urriaren 21ean, ERAKUNDEAREN egoitza fiskala aldatzeko beste proposamen bat egin zuen, «baldintza berdinetan atzera egiteari dagokionez, baina proposatutako egoitza Lleida izanik».

e) Proposamen berria ZAEARI 2011ko azaroaren 11n jakinarazi zitzaion, eta hark ez zuen erantzun eta ez zuen ezer adierazi. Hala, 2012ko urtarrilaren 12an, Foru Ogasunaren Zerga Kudeaketaren zuzendariordeak «txostena egin zuen eta espedientea Arbitraje Batzordera bidal daitekeela planteatu zuen hor, Itun Ekonomikoaren 43. artikuluen seigarren atalean aurreikusitako eran jarraitzeko prozedurak» (hamaikagarren aurrekaria); azkenean, 2012ko otsailaren 3an gatazka aurkeztea erabaki zen.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
5/2012	R6/2017	2017-05-12	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-helbidea

3.- Ekonomia Itunaren 43. artikularen bederatzigarren zenbakian xedatutakoaren arabera, «Administrazio interesatuetatik edozeinek zergadunaren egoitza aldaketa eragin ahal izango du. Administrazio horrek bere proposamena besteari helaraziko dio, behar diren aurrekariekin, bi hilabeteko epean (2014ko apirilaren 21eko 7/2014 Legeak txertatutako aldaketarekin, lauko epean) egoitza-aldaketari buruz duen iritzia azaltzeko eta ondoreak zein egunetatik sortuko diren adierazteko». Era berean, «ados jartzen ez badira ere, prozeduran aurrera jarraitu ahal izango da artikuluko honetako seigarren zenbakian azaldutako eran», hau da, Arbitraje Batzordeari Administrazioen arteko kasu kasuko zergadunaren helbideratzeari buruzko desadostasuna helaraziz.

Arbitraje Batzordearen 13. artikulua («zerga-administrazioen artean sor litezkeen gatazkak hasteko jarraitu beharreko prozedura») hau ezartzen du:

«1. Gatazka onartzeko eskakizun moduan, beharrezkoa izango da, gatazka aurkeztu baino lehenago, bere burua eskuduntzat jotzen duen zerga-administrazioak eskumenik gabea irizten dionaren inhibizioa eskatu izana, horrela bere eskumena erreklamatu, eta azken administrazio horrek errekerimendua errefusatu izana, eta bere eskumenean berrestea esanbidez nahiz isilbidez.

Aipatutako errekerimendu hori, gehienez ere, bi hilabeteko epean egingo da, bere burua eskuduntzat jotzen duen administrazioak bere iritziz Ekonomia Itunean ezarritako lotura-puntuak urratzen duen egintza edo egintzak ezagutzen dituen datatik kontaktzen hasita.

Errekerimendu-idatzian, argi eta garbi zehaztuko dira gatazkaren gai diren egintzak, bai eta zuzenbideko oinarriak ere.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
5/2012	R6/2017	2017-05-12	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-helbidea</i>

Baldin eta ezein Administrazioak ez badu bere burua eskuduntzat jotzen, eskumenik eza deklaratu beharko da, administrazio batetik bestearen aldekoa, eta, aldi berean, haren erabakia, inhibitzeari buruzkoa.

Inhibizioko errekerimendua jasotzen denetik hilabeteko epean errekerimendu horri erantzuten ez dionean, ulertuko da zerga-administrazioak bere eskumena isilbidez berresten duela. Era berean, beste Administrazioaren eskumenik ezari buruzko deklarazioari erantzuten ez dionean, ulertuko da zerga-administrazioak ez duela bere burua eskuduntzat jotzen.

Zergadunen zerga-helbideratzeen ondorioz sortzen diren desadostasunetan, Ekonomia Itunaren 43. artikuluko bederatzigarren paragrafoan aipatzen den bi hilabeteko epea bi administrazioen aldetik adostasunik izan gabe igarotzen delarik, orduan ez da beharrezkoa izango paragrafo honen lehenengo lerrokadan aipatzen den errekerimendua edo eskumenik ezari buruzko deklarazioa egitea gatazka aurkeztu ahal izateko.

2. Gatazkak, hain zuzen ere, hilabeteko epean sustatuko dira, aurreko paragrafoan aipatzen den esanbidezko edo isilbidezko berrespena izaten denetik kontatzen hasita, Arbitraje Batzordeko buruari zuzendutako idatzi baten bidez».

4.- Aurreko esparru arauemaitetik ondorioztatzen da zerga-administrazioen arteko gatazkak martxan jartzeak eskatzen duela bi denbora-baldintza kontuan hartzea Auzitegi Gorenak onartu dituenekiko, *eskumen-gatazka positiboetan* gertatzen denaren kontrara [kasu horietan «Administrazio batek uste du beste bat ez dagokion zergen eskumena aplikatzen ari dela eta bere ustez bere eskumena urratzen duen egintza edo xedapenaren aurka erreakzionatzen du, logikoa izanik ulertzea hala aurretiazko errekerimendua

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
5/2012	R6/2017	2017-05-12	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-helbidea</i>

nola gatazka formulatzeko epeak, berariazko eran edo era tazituan baztertuz gero, izaera preklusiboa duela; beraz, hori ez bada betetzen, ekintza prozesala gain behera etortzen da, epe hori Justizia Epaitegien aurrean errekurtsioak formulatzeko ezarritako epeekin parekatu behar baita», *egoitzari buruzko gatazketan* «ez da abiatzen beste Administrazio bati eskumena erreklamatzeko Administrazio baten aurretiazko jarduketa batetik, baizik eta zergadunen egoitzari buruzko desadostasun batetik. Desadostasun hori era adiskidetsuan ebazten saiatzen dira eta desadostasunak jarraitzen duenean soilik adierazten zaio Arbitraje Batzordeari desadostasuna ebazteko»; eta hau nabarmendu behar da: «ez duela garrantzirik egoitza-aldaketaren proposamenari buruzko erantzuna bi hilabeteko epekin kanpo ematea (...); beraz, ez du ezerk saihesten egoitza-aldaketaren proposamena baztertzen duen garaiz kanpoko ebazpen baten aurrean Arbitraje Batzordera joan ahal izatea hamabost eguneko epean (Estatuak Nafarroarekin duen Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 14.2 artikulua araberak eta hilabeteko epea gure Erregelamenduko 13.2 artikulua araberak) ezeste-erabakia ezagutzen denetik kontatzen hasita. Era berean, «ezerk ez du galarazten, ezarritako epean erantzunik izan ezean, aldaketa sustatu zuen Administrazioak egokitzat jotzen duenean, aldaketa-proposamena tazituki ezetsizat jotzea eta gatazka formalki sustatzea, isiltasun negatiboari buruzko araudi orokorra aplikatuta, eragiten dion zergadunaren segurtasun-gabezia juridikoa eskatu ahal izan gabe; izan ere, ebazpenean izandako atzerapenaren ondorioak, halakorik badago, Administrazio eskudunak praktikaturako likidazioaren araberak eskatu behar dira» (Auzitegi Gorenaren 2012ko ekainaren 7ko epaia, errek. 9/2011, FJ 6 eta Auzitegi Gorenaren 2011ko irailaren 22ko epaia, errek. 2429/2007).

Doktrina horretan oinarrituta, 2014ko maiatzaren 5eko Auzitegi Gorenaren Epaiak, errek. 256/2012, hau adierazten du: «beste Administrazio batek adierazitako egoitza-aldaketarekin ados dagoela edo ez dagoela ados adierazteko errekeritutako Administrazioari legez ezarritako bi hilabeteko epea

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
5/2012	R6/2017	2017-05-12	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-helbidea</i>

pasatu bazaio, ez da erabateko deuseztasunaren kausa, baizik eta baliorik gabeko ondorioak izateko defentsa-gabezia sortu behar da» (FJ 3).

5.-Kontua da, beraz, Ekonomia Itunean eta Arbitraje Batzordearen Erregelamenduan araututako adiskidetasunezko prozeduraren logikak ezartzen duela egoitza fiskalaren aldaketa sustatzen duen Administrazioak ezin duela bere zuzentze-proposamena onartutzat edo ezetsitzat jo errekeritutako Administrazioak (proposamenaren hartzailea) proposamenari buruz era tazituan *behin betiko* adierazpena egin arte; nahiz eta Auzitegi Gorenak hau adierazi: «ezerk ez du galarazten, ezarritako epean erantzunik izan ezean, aldaketa sustatu zuen Administrazioak egokitzen jotzen duenean, aldaketa-proposamena tazituki ezetsitzat jotzea eta gatazka formalki sustatzea, isiltasun negatiboari buruzko araudi orokorra aplikatuta» (2012ko ekainaren 7ko epaia, errek. 9/2011, FJ 6).

Beraz, errekeritutako Administrazioak *ez badu erantzuten* bi hilabeteko epean (orduan) ados dagoela egoitza fiskala eta ondorioak sortuko dituen data aldatzeko proposamenaren inguruan (Ekonomia Itunaren 43. artikulua, bederatzigarren zenbakia), egoitza zuzentzeko interesa duen Administrazioak, kasuko baldintzak eta proposamenaren Administrazio hartzaileak erakutsitako jarrera kontuan hartuta, hau egin ahal izango du:

- azken horrek zehaztutako legezko epean *erantzun ez izana desadostasun* gisa ulertu ahal izango du, gatazka Arbitraje Batzordera eramanez;
- edo, zehaztutako epea igaro arren, errekerimendua jaso duen Administrazioak zerga-egoitza aldatzeko proposamenaren inguruan duen *behin betiko* iritzia aztertu ahal izango du, koordinazio- eta lankidetzaren printzipio orokorrak gaitzen eta eskatzen dituzten Administrazioen arteko barne-komunikaziorako bitartekoak edo egoitza-aldaketarako prozeduretan zehatz-mehatz zehazten diren bitartekoak erabiliz horretarako. Hala badagokio, proposamena tazituki ezetsitzat jo ahal izango da, isiltasun negatiboari buruzko araudi orokorra aplikatuz eta betiere gatazka Arbitraje Batzordean

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
5/2012	R6/2017	2017-05-12	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-helbidea</i>

sustatzeko helburuarekin. (Zfr; ekainaren 20ko R 14/2016 Ebazpena, 95/2011 espedientea, 5. oinarria).

6.- Egiaztatu da, kasu honetan, BFAk Ekonomia Itunaren 43. artikuluko bederatzigarren zenbakiko egoitza-aldaketaren prozedura hasi zuela 2006ko maiatzaren 25eko bere proposamena ZAEAr jakinarazita, hau da, Arbitraje Batzordea benetan eratu baino bi urte lehenago. Agerikoa da ZAEAk 2009ko azaroaren 12an egoitza-zuzenketari buruz era formalean bere desadostasuna adierazi zionean errekeritutako Administrazioak ados dagoela edo ez dagoela adierazteko legez aurreikusitako bi hilabeteko epea pasatu zela, baita proposamena jaso zenetik ia hiru urte eta erdi ere.

Egia da, batetik, bi hilabeteko epea laburra izanik zaildu zezakeela edo areago eragotz zezakeela egoitza fiskala aldatzeko proposamenaren Administrazio hartzaileak erabaki bat hartzea (Zfr. urriaren 29ko R 14/2012 Ebazpena, 24/2012 Espedientea, 2. Oinarria); eta, bestetik, aipatutako epea pasatuta «ez da erabateko deuseztasunaren kausa, baizik eta baliorik gabeko ondorioak izateko babesgabetasunik eza sortu behar da» (Auzitegi Gorenaren 2011ko irailaren 22ko epaia, errek. 2429/2007; Auzitegi Gorenaren 2012ko ekainaren 7ko epaia, errek. 9/2011, eta Auzitegi Gorenaren 2014ko maiatzaren 5eko epaia, errek. 256/2012, FJ 3); aipatu dugun bezala, Auzitegi Gorenak hau adierazi du: «Ezerk ez du galarazten, ezarritako epean erantzunik izan ezean, aldaketa sustatu zuen Administrazioak egokitzat jotzen duenean, aldaketa-proposamena tazituki ezetsizat jotzea eta gatazka formalki sustatzea, isiltasun negatiboari buruzko araudi orokorra aplikatuta (...)» (Auzitegi Gorenaren 2011ko ekainaren 7ko epaia, FJ 6). Baina, argi dago, kontuan izanda ondorio horietarako egoitza fiskalaren aldaketa sustatu duen Administrazioari onartzen zaion diskrezionalitatea, bateratu egin beharko dela hala fede onaren eskakizunekin nola segurtasun juridikoaren eskakizunekin eta zergadunen eskubide zein bermeen errespetuarekin, bereziki ziurtasunerako bere eskubidearekin Administrazio fiskalarekin dituen harremanetan.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
5/2012	R6/2017	2017-05-12	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-helbidea</i>

Auzitegi Gorenak hau ere adierazi du: «Inplikaturako Administrazioen arteko egoitza aldatzeko prozedura baten aurrean gaude, baina bere garaian adosten denak garrantzi handia izango du zergadunaren egoitza fiskala zehaztean, zeren ordaintzen dituen zerga zehatzen arabera zehaztuko da bere zerga-egoera (...)» (Auzitegi Gorenaren 2014ko maiatzaren 5eko epaia, errek. 256/2012, FJ 4); zeren «nahiz eta gatazka zerga-araubide desberdinetakoak diren erakundeen artean gertatzen den, beti ohartu behar da interesdun partikularrak daudela eta horien zerga-egoera gatazkaren ebazpenaren mende egongo dela edo horrek baldintzatuko duela eta zergadun gisa dagozkien eskubide eta bermeak errespetatzeko eskubidea dute» (Auzitegi Gorenaren 2013ko apirilaren 11ko epaia, errek. 17/2012, FJ 3).

Azken gogoeta hori bereziki garrantzitsua da gatazka honetan, bertan ERAKUNDEAK bere egoitza fiskaleko Foru Ogasunari eskatu baitio 2005eko ekitaldiko BEZa itzultzeko. Azken egoera hori dela eta, ZAEArekin harremanetan jar zedila eskatzen zitzaion egoitza-aldaketa proposatu zuen Foru Aldundiari, prozeduraren fase adiskidetsuan, hark erakundearen egoitza-aldaketaren proposamenari buruzko behin betiko onespina eman eta, hala badagokio, desadostasunak Arbitraje Batzordearen aurrean planteatzeko helburuarekin, betiere 2008ko apirilaren 4an eratu ostean.

7.- Adierazi behar da zergadunen helbideratzeari buruzko desadostasun administratiboetan ez zaiola nahastutako Administrazioen eskumen-egoerari soilik eragiten, baita zergadunek Administrazio fiskalarekin duen harremanetan ziurtasunerako duen eskubideari ere (Zfr; 2014ko maiatzaren 5eko Auzitegi Gorenaren Epaia, errek. 256/2012, FJ 4); zeren gatazka hauetan egoitza fiskala aldatzea bidezkoa den ala ez ebazten baita eta, horrekin batera, aldaketak eragiten dien Administrazioak zergak ordainarazteko eskumenez baliatzen hasteko (zerga-administrazio hartzailea) edo baliatze hori uzteko (jatorrizko Administrazioa) unea zehaztuko baita. Aipaturako zerga horien egoitza fiskala

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
5/2012	R6/2017	2017-05-12	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-helbidea

hartzen du Ekonomia Itunak eskumenak esleitzeko edo banatzeko elementu gisa. Eta, ondorioz, zergadunak bere egoitza fiskal berriari dagokion Administrazioan bere betebeharrak eta eginkizunak noiztik bete beharko dituen ere zehaztuko da. Ez da beharrezkoa zergadunaren zerga-egoitza zehaztea zer garrantzitsua den azpimarratzea, bere zerga-egoerari eta «zerga-administrazioarekin dituen harremani» dagokienez (abenduarien 17ko 58/2003 Zergei buruzko Lege Orokorraren 48.1 artikulua eta martxoaren 10eko 2/2005 Bizkaiko Zergen Foru Arau Orokorraren 47.1 artikulua).

Zentzugabea eta logikarik gabekoa izateaz gain, segurtasun juridikoaren eskakizunen eta zergadunaren (bere egoitza fiskala zalantzan jartzen da) eskubideekiko errespetuaren aurkakoa izango litzateke [eskubide horien artean dago bere egoera juridikoa argi izatea aurreikusitako legeko bideen bidez, (Zfr. Auzitegi Gorenaren 2013ko ekainaren 28ko epaia, errek. 754/2011; Auzitegi Gorenaren 2013ko azaroaren 15eko epaia, errek. 467/2013 eta Auzitegi Gorenaren 2014ko maiatzaren 5eko epaia, errek. 256/2012, FJ 5)] Ekonomia Itunaren 43. artikulua bederatzigarren zenbakian «Administrazioek zergadunen egoitzaren inguruan dituzten desadostasunak (...)» ebazteko aurreikusitako adiskidetasunezko prozedura mugarik gabe ebatzi gabe eta irekita mantentzea, *sine die*, aldaketa sustatu duen zerga Administrazioaren mende (kasu honetan BFA), amaitutzat ematea erabakitzen duen arte, kasu honetan gertatzen den bezala, hasi zenetik bost urte baino gehiago pasatu arte.

8.-Adiskidetasunezko prozedura izapidetzeko legeko epeak izanda (Itunaren 43. artikulua bederatzigarren eta seigarren zenbakiak eta Itun Ekonomikoaren Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 13. artikulua), ez dirudi arrazoizkoa denik horiek alde batera uztea prozedura luzatuz 2006ko maiatzaren 25etik 2011ko urriaren 17ra arte. Kontuan izan behar da 2008ko apirilaren 4tik Arbitraje Batzordea eratuta dagoela eta Bizkaiko Foru Aldundiak

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
5/2012	R6/2017	2017-05-12	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-helbidea

Itunaren 43. artikulua seigarren zenbakian agindutakoaren arabera jardun beharko lukeela gatazka Arbitraje Batzordean aurkeztuz hilabete bateko epe preklusiboaren barnean (Itun Ekonomikoaren Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 13.2 artikulua) proposatutako egoitza-aldaketa ez zela egokia adierazteko Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziak erantzun esplizitua eman zuen egunetik (2009ko azaroaren 12) kontatzen hasita.

Horren ordez, 2011ko urriaren 17ra arte itxarotea erabaki zuen 2006ko maiatzaren 25ean hasitako prozedura amaitutzat emateko. Horrez gain, urriaren 21ean beste prozedura bat hasi zuen «baldintza berdinetan data atzeratzeari dagokionez, baina egoitza Lleidatara proposatuta (Errioxa beharrean, hasierako proposamenean helburua hori baitzen)»; 2012ko otsailaren 3an, azkenean, gatazka Arbitraje Batzordean aurkeztu zuen, 2004ko irailaren 10ean –eratu zenean– ERAKUNDEAREN egoitza fiskala zein zen zehaztu zedin (Zfr; Auzitegi Gorenaren 2014ko maiatzaren 5eko epaia, errek. 256/2012, FJ 4).

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKI DU

1.- Ez onartzea, garaiz kanpoko izateagatik, Bizkaiko Foru Aldundiak Zerga Administrazioaren Estatu Agentziari aurkeztutako 5/2012 gatazka, ez baitira bete Ekonomia Itunean eta Arbitraje Batzordearen funtzionamenduari buruzko Erregelamenduan epeei buruz jarritako prozedura-eskakizunak.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
5/2012	R6/2017	2017-05-12	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-helbidea

2.- Ebazpen hau Bizkaiko Foru Aldundiari, Zerga Administrazioko Estatu Agentziari eta ERAKUNDEARI jakinaraztea.